# EUSKADIKO BOLA-TOKI TXAPELKETA

ANTOLATZAILEAK

HERRERA, K...

## HERRERA - ALTZA - DONOSTIA

## 2002.go - Ekainaren - 8an

...AGUNTZAILEAK

DO... PATRONATUA

EUS... KUNTZA



kutxa

gracias a ti

www.kutxa.net

# EGITARAUA

Goizeko 8-tan 2002.GO EUSKADIKO BOLATOKI TXAPELKETA-ren hasiera.

Goizeko hamarrak inguru, San Luis enparantzan dagoen HERRERA KIROL ELKARTEAN hamarretakoa.

Tiradak amaitzean onenari txapela jaztea eta trofeo banaketa, Herrerako haur dantzarion agurra eta dantzaldia tarteko.

Eguerdiko 14,30-tan bazkaria EUSKAL GIROA Elkartean. Bazkalondoa alaitzeko trikitilariak. Aurtengo oroigarrien eskaintza partehartzaile guztiontzat.

# PROGRAMA

A las ocho de la mañana dará comienzo el CAMPEONATO DE EUSKADI DE BOLOS en la modalidad de bolatoki del año 2002.

Alrededor de las 10 de la mañana, descanso y aperitivo en el CLUB DEPORTIVO HERRERA (sito en la plaza San Luis Gonzaga)

Al finalizar las tiradas reparto de trofeos e imposición de la txapela al campeón. No faltará el aurresku con que les obsequiarán los niños dantzaris de Herrera (muchos de ellos también bolaris).

A las 14,30 comida en la Sociedad EUSKAL GIROA. A continuación entrega de un recuerdo significativo de éste campeonato y trikitilaris para amenizar la sobremesa.

# BOLARI ETA BOLATOKIAK

Nahiz eta Herrerran egun bolo jokoan zaletasun handirik ez izan, jakin badakigu gure aurrekoak gogotik aritzen zirela. Batez ere udaberritik aurrerantz, egunak luzatu eta eguraldiak berak laguntzen zuenean.

Iñazio Ugarteburuk esana digu Herrerako bolariak ez zirela edonolakoak puntta-punttakoak baizik. Gu geuk ere, txikitandik gogoan ditugu Herrerako enparantzan ia egunero antolatzen ziren bolo saio haiek.

Cierto es que hoy no hay mucha afición a los bolos en Herrera, pero también es cierto que la hubo y mucha. Antes de la guerra y después de ella.

Nos dice Ignacio Ugarteburu que los bolaris de Herrera eran de los mejores, que se llevaban casi todos los trofeos. Aún recordamos, de cuando éramos chicos, las tiradas de bolos que se organizaban en el bolatoki de la plaza San Luis. ¡Aquello era afición!

No es pues de extrañar que tan sólo en Herrera hubiese los bolatokis que hubo, por no mencionar los de barrios y pueblos limítrofes.

Beraz ez da arritzekoa zegoen bolo zaletasun horri erantzun ahal izateko hainbat bolatoki izatea. Honatx:

- Mendiola baserrikoa
- Julimasene sagardotegikoa
- Txingurri sagardotegikoa
- Trenaren Geltoki ondokoa ("Beti Adiskideak" taldeak han egiten zituen bere saioak)
- Zibilizatueneko atzekaldeko lurretan (Estazio ondokoa kendu zutenean entrenamenduetarako erabiltzen zutena)
- San Luis enparantzakoa. Herrera Kirol Elkartearen ardurapean zegoena.



Donostiako "Eusko Gaztediak" 1935.ean antolatuko 1.go Euskadiko Bolari Txapelketan Herrerako Jose Imazek jasotako kopa.



Jose Imaz bera, eskutan bola duela.



Jose Imaz eta Simon Gereñu elkarrekin, 1962.go argazki batean.



Ez dakigu noiz eta non, baina Simon Gereñu diploma bereganatzen.



Lizarralde diploma jasotzen, justu eskubialdean atzeraxeago Gereñu (Segura).

Kopak eskutan duenaren atzean Jose Aldanondo.

Eskubialdean berriz, Pako Nabarlaz.

Aspaldiko bolo tirada argazki honetan, zutabearen ondoan adi-adi begira, Juan Lizarralde





Eri-erdian Boni Eneterreaga sariak banatzen (Herrera Kirol Elkarteko lehendakari izana).

Eskubian Simon Gereñu.

Atzekaldeko ezkerraldean Matxain, bolotan jokalaririk onenetakoa. Txapela bat baino gehiago irabazi zituen. Bertsotan ere, dexente ona omen zen.

Lazkano jauna, bolo munduan ondotxo ezaguna, eskubitik hasita bigarrena, Herrerako Kirol Elkartearen aretoan.



# ... ETA EGUN HERRERAN ZER?

Topoaren ondoan autopistaren azpiko bolatoki txar bat badugu, hor egin behar izaten dira entrenamenduak, tirada saioak eta txapelketak.

Haurretan, 30 federatuak daude. Ostiralero aritzen dira jo-ta-ke bolotan. Duela urte bi, Legazpin ospatutako Gipuzkoako Txapelketan Herrerako Beñat Solaberrieta haurra gertatu zen garaile.

Zortzi bolarik osatzen dute helduen taldea, horietarik zazpi emakume izanik. Emakumezkoen mailan urtero batek ez bada besteak irabazten du Gipuzkoako lehen saria.

Aipamen berezia merezi du herreratarrontzat Antonio Goenaga jaunak, daukagun bolatoki txar hori erabilgarri bilakatzen gogotik saiatzen delako.

Esperantza da itxuraz azken galtzen omen dena. Agindu digute behar bezalako bolatokia egingo digutela (?), Donostiako Udaletxearen Kirol Patronatuaren esku dago.

• • • • • • • • • • •

Pues hay es nada, tenemos un mediocre bolatoki junto al topo, debajo de la autopista. En esas condiciones se ralizan todas las pruebas y si Dios o alguien más no lo remedia el Campeonato de Euskadi tendrá que hacerse ahí.

Tenemos 30 niños federados, realizan sus tiradas todos los viernes. Ahora hace dos años que el herreratarra Beñat Solaberrieta fue txapeldun en el Campeonato de Gipuzkoa celebrado en Legazpia.

Hay ocho federados adultos de los que siete son féminas, todos los años se llevan el primer premio en esta categoría, creemos que son las únicas.

Mención especial merece en éste espacio Antonio Goenaga que se ocupa y preocupa de arreglar y adecentar continuamente el bolatoki que tenemos.

Pero no perdemos la esperanza de un bolatoki mejor, con gradas incluso, cubierto y cerrado para que no enrede cualquiera en él. Nos lo han prometido. Está en manos del Patronato de Deportes del Ayuntamiento de Donostia.



Gure bolari txikiak trofeoak jaso ondoren.



Euskal Giroa Elkarteko haur bolariak elkarteko egoitzan merienda jaten.



Herrerako Sole Kuesta. 1994. urtean, emakumeon arteko Gipuzkoako txapelketa irabazi zuenean.



Antonio Goenaga, gure laguntzaile prestua, zutik Herrerako bolatoki barrenean.

# HERRERAKO BOLATOKIAN OSATZEN DIREN EKITALDIAK

## HAURRENTZAT:

- Herrerako jaien barrenean, Ekainean, udako txapelketa.
- Santomasetan, Abenduan, neguko txapelketa.

## HELDUENTZAT:

- Erregularitateko saioak, urte osoan.
- Ekainean sanluisetako txapelketa.

Eta oro har, urtean zehar entrenamendu saioak eta suertatzen diren edozein mailatako txapelketak.

18259 RP 825

kutxa
zuri esker

www.kutxa.net